

Auzoz auzo

Bidebieta



# Inauterietako sari nagusia Thamessisentzat

**Bidebietako Thamessis konpartsak inauterietako sari nagusia irabazi du aurten. Erdi Aroko gerlariak, baserritar, printze eta printsesak gaur egungo doinuetara bikain moldatu ziren joan den asteburuko desfilean.**

Laida Basurto

**S**ariak ez datoz zerutik. Thamessis taldeko 250 ki-deek urrian ekin zieten entseiei. Orduz geroztik, astean hirutan elkartu dira Bi-

debietako ikastetxe publikoan. Parte hartzaile gehienak gazteak dira, baina aurten guraso batzuek ere dantzari ekin diote. Gazteek zein helduek izerdi patsetan amaitu dute entseiu bakoitza, aukeratutako doinu eta dantzak oso biziak izan direlako. Aurten Thamessisekoek aukeratutako gaia Erdi Aroa izan da. Gerlariak, printze eta printzesak, aztiak eta baserritarrek osatu dute konpartsa garailea.

Duela dozena bat urte jaiotzen Bidebietan Thamessis konpartsa. Bidean sari bat baino gehiago irabazi du, baina garrantzitsuena autengo inauterietakoa izan da. 1995. urtean, hala ere, karroza ederre-

naren saria jaso zuten.

Konpartsakideek berauek egiten dituzte urtero karrozak. Thamessiseko arduradunen esanetan, *"Bidebietako beste konpartsetako ordezkariak urtero laguntzen digute karroza egiten. Lankidetzaz handia dago auzoetako taldeen artean"*.

## Piñata igandea lehen aldiz

Inauteriak ez dira amaitu. Asteburu honetan Trintxerpen bertako zein Donostiako konpartsa asko eta asko elkartuko dira, Thamessis barne. Desfilea ostiral, larunbat eta igandean arratsaldean egingo dute.


Igande goizean, bestalde,

**Martxoan  
Thamessisekoak  
Miarrizten  
ariko dira**

Piñata igandea ospatuko da Bidebietako frontoian. Thamessis ezezik, inguruko auzoetako beste bost konpartsa ere hurbilduko dira hara, eta hamaitakoa ere prestatuko dute gerturatutako guztientzat.

Thamessisekoek, ordea, ez dute oporrik hartuko. Izan ere, martxoaren 16an eta 17an Miarriztera joango dira. Bertan, Euskal Herri osoko eta Frantziako konpartsak bilduko dira. Konpartsen arteko aldea nabarmena izango da, baina ez dago dudarik kolorea, dantza eta umorea ez dutela falta izango.

**ARISTEGI EZEIZA, S.L.**



**AXULEIUAK • KOMUN-ONTZIAK • KANILAK • HIDROMASAIA  
BAINU ETA SUKALDE ALTZARIAK • DUTXA-ITXITURAK  
SAUNAK • HORMA-ARMAIRUAK • BAINU OSAGAIK**

**PROIEKTUAK • ERMANDATEAK • DEKORAZIOA  
• BAINUGELA ETA SUKALDERAKO ERAIKUNTZA MATERIALAK**

Zubieta 13 • 20007 DONOSTIA

• e-mail: [aristegi@euskalnet.net](mailto:aristegi@euskalnet.net) • TEL/FAX: 943 456001

